



## ***Ale honetan***

Aurkezpena 1

### **Gai monografikoa**

*Josu Perales*

Gainbegirada bat HABEren egiaztatze-probei: prozedurak eta emaitzak 3

### **Bestelako lankidetzak**

*Miren Errazu,  
Aintzane Ibarzabal*

Europako Markoaren bidez HABEren mailetan sakontzeko modulua 53

*Aitor Ortiz de Pinedo*

Helduak euskalduntzeko mintzamen-ariketak 76



# HIZPIDE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA



## HARPIDETZA-ORRIA

Izen-deiturak:

Kalea:

Zenbakia:

Herria eta Pk:

Probintzia:

**Hizpide aldizkaria jaso nahi dut etxean. 2011an hiru ale:**

N.A.N.:

**14 €. Honela ordainduko dut:**

Kontu korrante bidez

Bankua edo Aurrezki-Kutxa:

Sukurtsala:

Zenbakia:

Transferentziaz (Kutxa 2101.0381.01.0003069002)

HABEren izenean luzaturiko txekez



**Helbide honetara bidali behar da:  
HIZPIDE aldizkaria  
Vitoria-Gasteiz, 3  
20018 Donostia**

Formulario honetako datuak fitxategi automatizatu batean bilduko dira, HABE aldizkaria jasotzeko eskabideak kudeatu ahal izateko. Fitxategi datuetara sartzeko, datuak aldatu edo deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, HABEra jo dezakezue. Vitoria-Gasteiz kalea, 3-6, 20018 Donostia.



# Aurkezpena

Eskuartean duzu, irakurle, Hizpide aldizkariaren 78. alea. Begira diezaiogun, ohi bezala, mamiari.

*Monografia.* – Lehenengo artikulua HABEk gaur egun, ebaluazioaren alorrean, euskara-mailak egiaztatzeke darabilen sistemari dago eskainia. Artikuluaren izenburua da “*Gainbegirada bat HABEren egiaztatze-probei: prozedurak eta emaitzak*”. Eta Josu Peralesen eskutik datorkigu. Azterketarien profilari begiraturaz hasita akreditazio-sistemaren nondik norakoak jorratzen dira.

Hiru arlo nagusi elkarrekin estu lotuak bereizten dira artikuluan:

1) Lege-euskarria. Egiaztagiria erakunde ofizial batek luzatzen ditu. Prozedurak, bitartekoen antolaera, jarduteko arauak argi eta garbi zehaztu behar dira baita, dagokienean ere, hiritarren eskura jarri eta beharrezko informazio guztia zabaldu. Horretarako, lege-esparru horren diseinua egin behar izan da eta, horren baitan, garaian garaiko dekretu, agindu, ebazpenak prestatu eta ezagutzera eman behar dira.

2) Kudeaketa-sistema eraginkorra ere beharrezkoa da, prozedurak etengabe aztertuz, hobetuz eta finduz.

Hamaika dira atazak: kronogramak osatu, probak sortu, informazioa zabaldu, aztertzaileak prestatu, aztertzaileen irizpideak bateratzeko saioak burutu, azterketa-egoitzak bilatu, egiaztagiria banatu, erreklamazioei erantzun... Torloju asko dituen makinaria da eta horietako bakoitzak egon behar du dagokion neurrian estututa sistemak bere osoan funtziona dezan.

3) Azkenik, derrigorrezkoa da estandar psikometriko eta etikorik gorenak bidelagun izatea. Lehenengo mailan zehazten diren hizkuntza abildadeen jabe badela dioen agiriak berme osoz ziurtatu behar du baieztapen hori. Egiaztatze-proben kalitatea dugu, beraz, sistemaren arima eta ardatza: diseinua, itemen erredakzioa, ataza-bankuak, testatze-lana, emaitzen analisiak, tresnen baliotasuna eta fidagarritasuna etab. egitekoen parte ezin utzizkoa da. Duda-mudakoa da erabat neurgailu akastu batek eskainitako informazioa. Arreta osoa merezi du, beraz, alderdi honek.

Hiru arlo horiek bereizita, Europako markoaren ekarpena ere hartzen da aintzat artikuluan, markoan zehazten diren mailen eta HABEren arteko egokitzapena azalduz. Deialdiz deialdi izandako emaitzak ere aztergai ditugu. Idazlanak eta ahozko ekoizpenak ere bi aztertzailek zuzentzea prozedura egokia da emaitzen fidagarritasuna areagotzeko. Artikuluan irakur daitekeenez, jomuga da proben ehuneko ehunak izatea zuzenketa

bikoitz hori. Idazlanen zuzenketari dagokionez, esaterako, zuzentzaileek ez dute elkarren berririk izango harik eta bakoitzak bere zuzenketa-lana amaitu arte. Azterketarien deiturak ere ez dituzte jakingo zuzentze-prozesuan. Honetan guztian informatikak duen pisua azpimarratzen da artikuluan.

Funtsezkoak dira hemen, ezbairik gabe, aztertzaileak. Aztertzaileen ebaluazio-irizpideak bateratzeko ahaleginak etengabeak dira sistema bera abian jarri zen unetik beretik. Eta ahaleginak beren emaitzak eskaintzen ari dira zeren eta aztertzaile-bikoteen arteko adostasun-mailak kalkulatu dira –kappa koefizienteak– eta onargarriak eta bikainak ere badira. Azkenik, hainbat gogoeta ere eskaintzen dira geroko nondik norakoa ikusten lagungarri.

*Bestelako lankidetzak.*– Ikusia dugu aurreko artikuluan egiaztatze-sisteman ari diren aztertzaileek duten garrantzia. Aztertzaileak trerabatzea da, beraz, zutabe behinenetako bat. Horrela bada, HABEren mailtan sakontzeko modulua prestatu berria da. Horren berri emateko, Miren Errazu HABEKO teknikariak eta Aintzane Ibarzabal irakasleak “*Europako Markoaren bidez HABEren mailtan sakontzeko modulua*” izenburuko artikulua prestatu dute. Honela dioskute beraiek: Helduen euskalduntze-alfabetatzeaz arduratzen diren profesionalek argi izan dute beti prozesu baten baitan burutzen dela beren jarduna, eta prozesu hori zehaztu beharra dagoela, hizkuntza bat ikas/irakasteko ibilbideak abiapuntu eta jomuga argiak izan ditzan. Hala, HABEK hasiera-hasieratik hainbat urrats eman ditu euskararen ikas/irakaskuntza prozesua zehaztu eta bideratzeko, eta lan horren emaitza da 1999an argitaratu zuen Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua (HEOK). Alabaina, gaur egun prozesu hori bideratu eta hizkuntz gaitasunaren mailak zehazteko oinarri bakarra ez da HEOK; izan ere, ezin dugu alde batera utzi Europako Kontseiluak 2001ean argitara eman zuen Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa. Horra hor bi osagai euskararen ikas-irakaskuntza prozesua zedarritzeko. Baina sukaldeko errezetetan bezala, osagai horiek ongi lotu behar dira, plater goxoa prestatzeko. Guk asmo horrekin prestatu dugu Europako Markoaren bidez HABEren mailtan sakontzeko modulua.

Azkenik, Aitor Ortiz de Pinedo irakaslearen eskutik datozkigu mintzamena lantzeko hainbat ariketa azaltzen dituen artikulua. Mintzamen-ariketa komunikatiboak ditu jorragai, helduekin erabiltzeko. Aitorrek dioskunez, gaiak aldatuta ariketa horiek gazteagoekin lan egiteko ere balio lezakete. Ariketa-ereduak dira, irakasleak bere beharretara egokitu ditzakeenak. Adibidez, hurrenkeratze- edo zerrendatze-jardueretan umearen mundutik hurbil dauden itemak hurrenkeratu daitezke: janariak, irudi bizietako pertsonaiak, kirolariak, jolasak, kantak..., asmakizun zientifikoak hurrenkeratu ordez. Hurrenkeratzeko irizpideak ere aldatzeko aukera ere badago.

Horra hor, irakurle, alearen mamia. Hizpidek probetxuzkoa izan daki-zula opa dizu.